

Hasten Programa



Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak eta Vital Fundazioak argi daukate ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea direla Arabaren bi erronka nagusiak. Bada, enpresa-sareak enplegua sortzeko zailtasunak dituen aldetik, Arabako ekonomia bultzatzeko, ezinbestekoa da enpresa berrien sorkuntza sustatzea, eta, horretarako, behar-beharrezkoa da erakundeen arteko lankidetzeta.

Hasten Programa Arabako Ganberaren Enpresak Sortzen eta Finkatzen Laguntzeko Zerbitzuaren bidez kudeatzen da. Horiek horrela, Ganberak ekintzaileari behar duen laguntza eskaintzeko ardura hartzen du bere gain, enpresa-proiektu bat garatzeko erronkan arrakasta izan dezan.

Vital Fundazioak, bestalde, 20 poltsa ekonomiko ematen dizkie hitzarmen honi dagozkion programetan parte hartzeko hautatzen diren proiektuei.

Ezaugarriak

- Azalpena: Hautatutako 10 enpresa-proiektu berriek honakoa jasoko dute:
 - 1.250 euro (PFEZ atxikipenari lotuta) poltsa ekonomikoa, Vital Fundazioak emandakoa.
 - Arabako Ganberaren Enpresak Sortzen eta Finkatzen Laguntzeko Zentroan banakako aholkularitza eta jarraipen programa batean parte hartzeko aukera.
- Talde onuraduna: Araban enpresa-proiektu bat garatzen ari diren eta oraindik jarduera

martxan jarri ez duten ekintzaileak.

- Eskakizunak:
 - Eskaera aurkezteko unean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda ez egotea.
 - Enpresa berriaren egoitza soziala eta fiskala Araban egotea.
 - Programan sartzen denetik, enpresa-jarduera beranduenez 6 hileko epean abiaraztea, edo, bestela, enpresa-proiektuaren garapenean asko aurreratu duela egiaztatzen duen memoria aurkeztea.
- Balorazio-irizpideak: 10 proiektu onuradunak aurkeztutako proiektu guztien artean puntu gehien lortzen dutenak izango dira, honako irizpide hauei jarraiki:
 - Proiektuaren berrikuntza-maila: 10 puntu gehienez.
 - Proiektuaren bideragarritasun- eta potentzialtasun-maila: 15 puntu gehienez.
 - Talde sustatzailearen gaitasunak, esperientzia eta inplikazioa: 10 puntu gehienez.
 - Aurkeztutako proiektuaren definizio-, argitasun- eta kalitate-maila: 10 puntu gehienez.

Eskaerak

- **Eskaerak Arabako Merkataritza eta Industria Ganberako** egoitzan egin behar dira (**Dato k. 28**).
- **Eskaerak aurkezteko epea** 2019ko irailaren 20an amaitu zen.

Informazio gehiago www.caramaradealava.com webgunean (kanpoko esteka).